

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 12/2020 zerga premiazko araugintzako dekretua, urriaren 6koa. Onespena ematea COVID-19arekin lotutako premiazko zerga neurri gehigarriei, Arabako zerga sistema osatzen duten zerga jakin batzuetan

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honen xedea da zerga neurri gehiago hartzea COVID-19ak eragindako ondorioak arintzeko.

Hain zuzen ere, eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez, salbuetsita daude maiatzaren 29ko 20/2020 Legegintzako Errege Dekretuan araututako bizitzeko gutxieneko diru sarreraren bidez jasoriko errentak. Bestalde, zehazten da jarduera ekonomikoen etekintzat joko direla bai jarduera uzteagatik prestazio gisa jasotako zenbatekoak (martxoaren 17ko 8/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 17. artikuluan araututako prestazioa) bai ekainaren 26ko 24/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 9. eta 10. artikuluetan araututako prestazioak.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokion ordainketa zatikatuari dagokionez, 2020ko hirugarren hiruhilekoari dagokiona ezabatzen da, bai eta bi hilean behingo edo sei hilean behingo ordainketen aldi baliokidea ere.

Sozietateen gaineko zergan enplegua sortzearen kenkariari dagokionez (pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan ere aplika daiteke), berariazko arau batzuk ezartzen dira kenkari hori aplikatzeko eskubidea ematen duten baldintzak betetzearekin zerikusia daukatenak.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari dagokionez, handitu egin da turismoaren sektorerako hipoteka luzapenarekin lotutako zerga pizgarria, bai eta salgaien garraio publikoaren sektorerako eta bidaiarien autobus garraio diskrezionalerako ere.

Azkenik, zenbait aldaketa egin dira makinak edo aparatu automatikoak ustiatzearen bidezko jokoaren gaineko zergaren arauketan.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 8. artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, hauxe

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

Bat. Bizitzeko gutxieneko diru sarreraren salbuespena.

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako, beste apartatu bat gehitzen zaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 9. artikuluari, hogeita hemeretzigarrena (39), hain zuzen ere. Hona hemen nola idatzita geratuko den:

“39. Maiatzaren 29ko 20/2020 Legegintzako Errege Dekretuan araututako gutxieneko diru sarreraren bidez jasotakoak.”

Bi. Jarduera uztearen ondoriozko prestazioak, COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko alarma egoeraren deklarazioak eragindakoentzat.

Jarduera ekonomikoen etekintzat joko dira hauexek: 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak jasotako zenbatekoak, jarduera uztearen ondoriozko prestazio gisa, zeina arautzen baita COVID-19aren ekonomia eta gizarte eraginari aurre egiteko aparteko presako neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 17. artikuluan; bai eta enplegua suspertzeko eta lan autonomia babesteko eta industria sektorearen lehiakortasunerako neurri sozialei buruzko ekainaren 26ko 24/2020 Lege Dekretuko 9. eta 10. artikuluetan eta, hala badagokio, aldi baterako indarraldia luzatzea arautzen duten xedapenetan araututako prestazioak ere.

Hiru. Ordainketa zatikatua.

1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak, jarduera ekonomikoak gauzatzen dituztenak, ez dira behartuta egongo Arabako Foru Ogasunean sartzera, edo, hala badagokio, autolikidatu eta sartzera 2020ko hirugarren hiruhilekoari dagokion ordainketa zatikatuaren zenbatekoa.

2. Baldin eta ordainketa zatikatua sei hilerik behingoa bada, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak, jarduera ekonomikoak gauzatzen dituztenak, soilik behartuta egongo dira Arabako Foru Ogasunean sartzera, edo, hala badagokio, autolikidatu eta sartzera 2020ko bigarren seihilekoari dagokion ordainketa zatikatuaren zenbatekoaren erdia.

3. Baldin eta ordainketa zatikatua bi hilerik behingoa bada, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak, jarduera ekonomikoak gauzatzen dituztenak, soilik behartuta egongo dira Arabako Foru Ogasunean sartzera, edo, hala badagokio, autolikidatu eta sartzera 2020ko bosgarren bihilekoari dagokion ordainketa zatikatuaren zenbatekoaren erdia eta 2020ko seigarren bihilekoari dagokion ordainketa zatikatuaren zenbateko guztia.

2. artikulua. Enplegua sortzearen kenkaria

1. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 66. artikuluko 2. apartatuko bosgarren paragrafoan xedatutako lan harremana azkentzen denetik aurrera langile kopuru bera berriz kontratatzeko epea lau hilabete luzatuko da, baldin eta lan harremana 2020ko martxoaren 14tik abenduaren 31ra bitartean iraungi bada.

2. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 66. artikuluko 2. apartatuko bosgarren paragrafoan jasotako hiru urteko epea zenbatzeko, enplegua sortzearen kenkaria aplikatzeari dagokionez, ez da kontuan hartuko 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldia, eta paragrafo horretan jasotako baldintza betetzat joko da.

3. artikulua. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga

Berriz ere idatzi da Ondare Eskualdaken eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren 69. artikuluko Bat apartatuko B) letraren 51. zenbakia, eta idazketa berriak 2020ko uztailearen 9tik aurrera sortu ditu ondorioak. Aipatutako zenbakia eduki honekin idatzita geratu da:

“51. Hipoteka mailegu eta kredituen eta hipoteka bermerik gabeko errentamendu, mailegu, leasing eta rentingen moratoriak formalizatzeko eskriturak, baldin eta egiten baldin bada ekonomia suspertzeko eta enplegua sortzeko premiazko neurriei buruzko uztailearen 3ko 25/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.etik 9.era arteko artikuluetan turismo sektorerako arautzen den hipoteka moratoriaren aplikazioz, eta COVID-19ak garraio eta etxebizitza arloetan duen eraginari aurre egiteko ekonomia suspertzeko neurriei buruzko, uztailearen 7ko, 26/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 18.enetik 23.enera arteko artikuluetan salgaien garraio publikoaren sektorerako eta bidaiarien autobus garraio diskrezionalerako moratoriaren aplikazioz.”

4. artikulua. Jokoaren gaineko zerga

Berriz ere idatzi da Arabako Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duen otsailaren 14ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluko Hiru apartatua, eta idazketa berriak 2020ko urriaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. Aipatutako apartatua eduki honekin idatzita geratu da:

“Hiru. Ustiapen autorizazioa edo baimena lortzen den urtean, edo hura eten, errebokatu edo azkentzen den urtean, kuota hilabete naturalka hainbanatuko da, autorizazioa ematen denetik edo etendura kentzen denetik baja eman arte edo hura eten edo errebokatu arte.”

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean, eta haren artikuluetan adierazitako ondorioak eragingo ditu.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera baliozkotu edo erreboka dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 6a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA